

# Inork ulertzen ez duen krisia

*Komunikabide nagusiek esaten ez digutena eta krisiari aurre egiteko benetan jakin behar duguna.*

Bere hitzaldietan, Jesús Burguerak aurrerantzean gauza bera izango ez den ekonomia baten giltzarriak eskainiko ditu, eta egiten zaizkion galdera guztiei erantzungo die. Astean gertatzen diren ekonomi albisteak aztertzeke astia ere izango da.

**Lekua:** Irungo Atsegina Elkarte

**Orduategia:** 19:30etik 21:00etara

## 1- Bankuak eta botere ekonomikoa. *(Urriaren 4an (osteguna))*

Bankuek sisteman duten papera. Dirua nola “sortzen” den. Kreditua. Nola ulertu banku baten balantzea. Banku Zentralen papera. Aurrezki Kutxak, Bankia eta beste batzuk.

Estatu Batuetako banku handiak (Wall Street esaten zaion hori). Boterearen munduko ehuna: Nola enpresa (eta banku) bakar batzuk mundua menderatzen duten.

## 2- Finantza-merkatuak. *(Urriaren 10ean (asteazkena))*

Lau merkatu nagusiak: akzioetakoak, zorretakoak, dibisetakoak eta eratorrietakoak. Zertan dautzan eta nola funtzionatzen duten (ordenagailutik denbora errealean haietako bakoitzean sartuz, eta baita petrolioarenean eta beste lehengai batzuen ere).

Benetan nortzuk diren, nork maneiatzen dituen. Arrisku-prima. Zera da crash bat? Mundu mailan kapital-mugimendu handiek nola funtzionatzen duten. Rating agentziak.

## 3- Krisia. *(Urriaren 17an (asteazkena))*

Nola iritsi gara egoera honetara? Zergatik gaude horrela?

Mundu-mailako benetako krisia al da, hazkundearekin eta garapen teknologikoarekin lotutako ziklo handietara lotua? Neurri batean “diseinuzkoa” den krisi baten aurrean al gaude? Desberdintasunen gorakada eta klase ertainen beherakada. Krisia noiz arte? Krisia eta langabezia. Enplegu baterako eskubidea ala oinarrizko errenta baterako eskubidea? Estatu Espainiarraren kasu berezia.

## 4- Garai aldaketa. *(Urriaren 24an (asteazkena))*

Krisiari begirada bat geopolitikatik. Zorraren pisua mundu-mailan. “Soiltasuna” ala “hazkundera”?

Estatu Batuen hegemoniaren amaieraren hasieran al gaude? Amerikako Estatu Batuak eta haren zor itzela. Txina, Errusia, Brasil eta gorantz doazen beste herrialde batzuk. “Udaberri” arabiarak. Europa. Alemaniaren eta ardatz franko-alemaniarraren papera. Euroaren etorkizuna. Dolarra ala euroa?

Zein aldaketa politiko dira posible eraldatzen ari den Europa batean?